

BALORAZIO IRIZPIDEAK	Gehieneko puntuazioak / murrizketa
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu: “Programazio didaktikoak gehienez ere 50 folio izanen ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakar batetik idatziak, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe. Grafiko, taula, orri-oin eta goiburuetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Azala nahi bezala diseina daiteke. Gutxienez ere 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 folio horien barnean”.</p>	<p>Probaren A zatiaren balioaren % 50eko murrizketa</p>
Gaiaren antolaketa	2 puntu
<p>Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabeko testuingurua ematea.</p>	Puntu bat
<p>Ongi planteatuta daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika.</p>	Puntu bat
Eduki teknikoak:	2 puntu
<p>Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.</p>	2 puntu
Eduki didaktikoa:	6 puntu
<p>Ikasturterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak. Aniztasunari erantzuteko neurri koherenteak eta egokiak.</p>	1,7 puntu
<p>Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.</p>	1,7 puntu
<p>Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza laguntzako premia berariazkoak dituzten ikasleentzako neurriak.</p>	2 puntu
<p>Programazioa modu argian azaltzea.</p>	0,6 puntu
Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)	2 puntu
<p>Ortografia akatsak</p>	
<p>Gramatika akatsak</p>	
<p>Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiek zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>	